

HONDARRIBIKO AGENDA 21EN HERRITARREN FOROAREN BILERA

Bilera antolatu duen organoa:	Hondarribiko Udala
Deialdia egin duena:	Hondarribiko Udaleko Ingurumena eta Agenda 21 departamentua
Data, tokia eta ordua:	2011ko azaroaren 16a Hondarribiko Udaleko Udalbatza Aretoa 19:00
Harremanetarako pertsonak:	Ingurumena eta Agenda 21 departamentua: - Naroa Susperregi Idazkaritza Teknikoa (Izadi 21): - Aitor Gonzalez
Telefonoak:	943 111 242 (Naroa Susperregi) 943 492 215 (Izadi 21)
Helbide elektronikoa	ingurumena@hondarribia.org (Naroa Susperregi) info@izadi21.net (Izadi 21)
Gai-zerrenda:	<ol style="list-style-type: none"> 1. Ongi etorria eta mahai inguruaren aurkezpena 2. Hondarribiko Ekintza Planaren 2010eko ebaluazioaren emaitzak 3. Iraunkortasun Adierazleen kalkuluaren emaitzak 4. Norberak lekarkeena

PARTE HARTU DUTE:


- Amaya Gezala
- Anjel Alkain
- Belén Martínez
- Eduardo Basterretxea
- Gregorio Berrotaran
- Hodei Abaurrea
- Joseba Garaialde
- Josebe Fernandez
- Joserra Emparan
- Juan Mari Altuna
- Julen Goikoetxea
- Katrin Martinez
- Luis Carlos Alejos
- Maiaia Urrutia
- Naroa Susperregi
- Xabier Sagarzazu

1. Ongi etorria eta mahai inguruaren aurkezpena

Juan Mari Altunak ongi etorria eman die bertaratu direnei eta bileraren helburua azaldu du, hau da, herritarrekin Tokiko Ekintza Planaren ebaluazioaren emaitzak eta Iraunkortasun Adierazleen kalkularen emaitzak konpartitzea. Jarraian, mahai inguruko pertsonak aurkeztu ondoren, ingurumen aholkularitzako Aitorri pasa dio hitza.

2. Hondarribiko Ekintza Planaren 2010eko ebaluazioaren emaitzak

Lehenik eta behin, bileraren helburu diren azalpenak hobeto ulertzeko, Aitorrek Hondarribiko Agenda 21en ibilbidearen fase nagusiak laburbildu ditu, Txingudiko Udaltalde 21a sortu zenetik (2004. urtean) Herritar Foro honetara arte. Jarraian Tokiko Agenda 21 prozesuaren fase ezberdinak aurkeztu ditu, modu orokorrean, jarraian agertzen den grafikoan oinarrituz:




Ondoren Hondarribiko Ekintza Planaren deskribapena egin du Aitorrek. 2009an Udal Osoko bilkuran onartutako plana helburu orokorrak deskribatzen dituzten 7 Lerro Estrategiko edo ataletan banatuta dagoela adierazi du:

1. Tokiko ekonomia bizia eta iraunkorra sustatzea
2. Biztanle guztien bizi kalitatea eta gizarte ongizatearen hobekuntza bultzatzea
3. Udalak tokiko garapen iraunkorraren aldeko jarrera eredugarria bultzatzea
4. Hirigintza eredu iraunkor bat diseinatzea eta planifikatzea
5. Biztanleriaren mugikortasun eta irisgarritasun beharrak iraunkortasun irizpideak aintzat hartuz asetzea
6. Udalerriko natura ingurunea babestea eta bere baloreak ezagutzera ematea (bioaniztasuna eta paisaiaren babesa)
7. Hiri-ingurumenaren kalitatea handitu eta natur-baliabideen kudeaketa iraunkorra sustatzea

Guztira, Hondarribiko I. Iraunkortasunerako Ekintza Plana 214 ekintzaz osatuta dagoela, hau da, EAEko 15.000 biztanlez gorako herrietako planek biltzen dituzten ekintzen batz bestekoa baino (169 ekintza) kopuru altuagoa duela azpimarratu du

Aitorrek. Bestetik, Hondarribiko Ekintza Planaren, ekintzetatik %44-ak izaera jarraia duela aipatu du.

Aitorrek adierazi duenez, lehenengo ebaluazio prozesu honetan, 17 eragilek parte hartu dute (udal eta eskualde mailako eragileak, bai teknikari nahi udal ordezkari politikoak), hau da, EAEko herrietako ebaluazio prozesuetan parte hartu duten pertsonen batz bestekoa (12 eragile) baino gehiago.




Iturria: Gipuzkoako udalerrietako Tokiko Ekintza Planen ezarpenaren ebaluazio-txostena (2010)

Tokiko Ekintza Planaren ebaluazioaren helburu nagusia Udalak 2009. urtean onartutako Agenda 21en Ekintza Planaren ezarpen maila urtez urte ezagutzea dela adierazi du Aitorrek eta, bestalde, Ekintza Planaren helburu orokorrak betetzen ari garen jakiteko, Iraunkortasun Adierazleak kalkulatzeko direla. Honetarako, EAEko udalei eskaintako laguntza programan parte hartu du Hondarribiko Udalak. Ondoren, lortutako emaitzekin, hurrengo urteari begirako hausnarketa egiten da,


hau da, ezarpen maila txikiena izan duten ekintzen inguruko azterketa bat eginez eta, ahal den neurrian, hurrengo urteko udal aurrekontuetan kontuan hartuz (jardueren programazioa udal aurrekontuei lotuta).

Hau guztia azaldu ondoren, Aitorrek, lehenengo ebaluazioaren emaitza esanguratsuenak aurkeztu ditu:


- ✓ Hondarribiko Tokiko Ekintza Plana (aurrerantzean TEP) 2010. urtean ebaluatu da lehen aldiz, eta ebaluatutako urteak 2009 eta 2010 izan dira, hau da bi urte horietan zehar planak biltzen dituen ekintzen gauzatzeko maila aztertu da (Hondarribiko Ekintza Plana 2009. urtean onartu baitzen).
- ✓ TEParen bigarren urterako, lortutako ezarpen maila %18-koa izan da. EAEko udalerrien ezarpen mailaren batz bestekoa, Ekintza Planaren bigarren urterako, %23-a da. Beraz, Hondarribiko I. Iraunkortasunerako Ekintza Planaren ezarpen maila EAEko batz bestekoa baina baxuagoa da.



- ✓ TEParen lerro estrategikoaren araberrako ezarpen mailari dagokionez, "Biztanleriaren mugikortasun eta irisgarritasun beharrak iraunkortasun irizpideak aintzat hartuz asetzea"ri da ezarpen mailarik altuena duena: %36.



- ✓ Ebaluatutako azken urtean (2010) Ekintza Planaren %12a aurreratua edo amaitua dagoela ikus daiteke. Ekintzen %51a dagoeneko 2010ean hasita moduan aurkitzen direla kontutan hartuz, aurreikusi daiteke orain arteko hazkunde erritmoa mantendu daitekeela.



3. Iraunkortasun Adierazleen kalkuluaren emaitzak

TEParen ebaluazioan jasotako emaitza orokor hauek aurkeztu ondoren, Aitorrek Tokiko Iraunkortasun Adierazleen kalkuluaren emaitzak aurkeztu ditu. Ondorengoak dira aurkeztutako adierazleak (informazio gehiagorako www.hondarribia21.org web orrian aurkitu daiteke - "Tokiko Iraunkortasun Adierazleak Emaitzak 2011_Hondarribia[2].pdf" dokumentua -):

- ✓ Poluituta egon daitezkeen lurzoruaren azalera: adierazle honen joera *gutxitzea* izan beharko luke eta, emaitzen arabera, 2008 urtean 2002 urtean baino kutsatuak egon daitezkeen lurzoruaren m² kopurua handitu egin dela ikus daiteke. Honek ez du esan nahi 2002 urtetik 2008 urtera bitartean Hondarribiko lurzoruak kutsatu egin direnik; 2008ko emaitzek 2002. urtean egindako azterketa sakondu, zehaztu eta osatu egin zuela baizik.
- ✓ Etxeko ur kontsumoa: adierazle honetan espero den joera *gutxitzea* da eta hala gertatzen da 2001. urtetik 2009 urtera bitartean Hondarribian.
- ✓ Hiri-hondakinen sorrera: adierazle honen joera 2001 urtetik 2007 urte bitartean *handitzearena* izan da, baina azken urteetan, hondakinen sorrera *gutxitzearen* joera hartu du, beraz, modu egokian jarraitzen du.
- ✓ Birziklapena eta gaikako bilketa: adierazle honen joera egokia *handitzearena* da, eta hala gertatzen da Hondarribiaren kasuan ere.
- ✓ Hondakindegira bideratutako hondakinak: adierazle honen joera egokia, berriz, *gutxitzearena* da, eta kasu honetan ere, egokia da adierazle honen emaitza. Izan ere, 2001. urtetik hona hondakindegira bideratutako hondakinen kopurua etengabe gutxitzen ari da.
- ✓ Hondakin arriskutsuen sorrera: emaitzen arabera, azken urteetan hondakin arriskutsuen sorrerak gorantz egin du. Adierazle honi dagokion azken datua 2007koa da, datua ematen duen iturriak ez baitu datu eguneratuagorik.
- ✓ Etxeko elektrizitate eta gas naturalaren kontsumoa: Urteetan zehar eboluzio gorabeheratsua izan duen arren, izaera orokorrari erreparatu badirudi adierazle honek islatutako kontsumoa bere horretan mantendu dela.

- ✓ Herriko elektrizitate eta gas naturalaren kontsumoa: Kasu honetan ere, kontsumoa nahiko gorabeheratsua izan da azken urteetan. Halere, 2008tik 2009ra %14,7 inguru jaitsi da herriko kontsumoa.
- ✓ Etxeko elektrizitate eta gas naturalaren kontsumoaren ehunekoa: Aurreko adierazleak ez bezala, *goranzko* joera izan du azken urteotan. Adibide gisa aipatu 2006. urtetik 2009. urtera %6 inguru igo dela etxeko kontsumoa.
- ✓ Zerbitzu sektorearen elektrizitate eta gas naturalaren kontsumoaren ehunekoa: Sektore honetan, modu leunagoan bada ere, *goranzko* joera antzematen da, batez ere azken urtean.
- ✓ Industria sektorearen elektrizitate eta gas kontsumoa: Kontsumo joeran *beherakada* izan du sektore honek azken urteotan. 2004tik 2009ra %6 bat jaitsi da industria sektorearen energia kontsumoa.
- ✓ Herri mailako CO₂ isurpenak: Iaz kalkulatu zen lehen aldiz Hondarribiko CO₂ gasaren. Altu xamarra dirudien arren, datozen urteko kalkuluek emango digute adierazle honen eboluzioa.
- ✓ Udalaren CO₂ isurpenak: Aurreko adierazlearen kasuan bezalaxe, urte bakarrari dagokion datua dugunez, ezin da datuaren eboluzioari buruzko iritzirik eman. Halere, kasu honetan zein aurrekoan, adierazle hauek *murrizteko* joera izan beharko lukete.
- ✓ Udalerrian IKS (Ingurumen Kudeaketa Sistema) bat duten enpresa kopurua mantendu egin da azken lau urteetan. Orotara, Hondarribian 3 dira IKS bat duten enpresak.
- ✓ Udalaren IKS (Ingurumen Kudeaketa Sistema): 2009ra arteko datua baino jaso ez denez, Udalaren IKS kopurua hutsean agertzen da. Halere, datorren urteko kalkuluan, Hondartzako ISO 14001 ziurtagiria lortu izana islatuko da grafikoan.
- ✓ Herritarren parte-hartze bileretako partaide kopurua: Adierazle hau murriztu egin da azken urtean. Joera hau arrunta da, Tokiko Agenda 21en Ekintza Plana osatzen den urtean parte-hartze bileretan partaide asko izaten direlako. Plana onartu ondorengo saioetan, parte-hartzaileen kopurua gutxitu egiten da.
- ✓ Herritarren parte-hartze bilera kopurua: Aurreko arrazoi beragatik, Agenda 21en Ekintza Plana osatzeko garaian izandako bilera kopurua altuagoa da hurrengo urtetakoa baino. Izan ere, Ekintza Plana osatze prozesuan bilera gehiago egin ohi dira. Halere, kasu bietan goranzko joera bilatu nahi da.
- ✓ Langabezia tasa: Azken urteetan langabezia tasa hazi egin da Hondarribian; 2007ko datuekin alderatuz gero, %1 handitu da.
- ✓ Emakumezkoen langabezia tasa: Emakumeen langabezia tasa handiagoa bada ere, azken urtean %1,7an jaitsi da, eta hori, gaurko egoeran positibotzat har daiteke. Dena den, hurrengo urteetako eboluzioa aztertu beharko da.

4. Norberak lekarkeena

Azalpenekin amaitu ostean, Aitorrek azaldu du adierazleen daturik berrienak 2009koak direla, izan ere, kalkulatu diren unean, informazio iturriek (Iberdrola, Diputazioa, ...) ez dutelako datu eguneratuagorik. Hemendik gutxira, 2012an, iraunkortasun adierazleak berriz kalkulatu dira eta adierazleentzako urtea 2010a izango da. Beti aurkituko gara atzerapen horrekin, kalkulatzeko garaian informazio iturriek ez dutelako datu eguneratuagorik emateko.

Bilerara bertaratutako Anjel Alkainek Jaizkibelgo zundaketen inguruan hitz egiteko baimena eskatu du. Izan ere, azaldu du, aurreko bilera batean Asun Yarzabalek

Jaizkibelgo ur-hartune berrien proiektuak ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa bazuen galdetu ziola Txingudiko Zerbitzuak-eko arduradunari eta honek baietz erantzun zion. Baina proiektuan gorabehera batzuk antzeman dituztela gaineratu du Anjelek eta, hori Agenda 21en Herritar-Foroan azaltzeko 10 minutu eskatu ditu.

Juan Mari Altunak gaurko Foro honetako helburua beste bat izan arren, beste inork kontrakorik esan ezean, bere aurkezpena egiteko aukera bazuela erantzun dio. Emandako azalpenak ulertzeko ondorengo orrietan jasotzen den dokumentazioa banatu du Anjelek. Halere, modu laburrean bada ere, azaldutako puntu nagusiak jaso dira:

- Jaizkibeleatik hartzeko aukera izango den ur-bolumenarengatik eta Jaizkibeleko akuiferoaren berezko ur-kargaren arteko erlazioa dela-eta, Jaizkibelgo ur-hartuneentzako proiektuak Ingurumen-Inpaktuaren banakako Ebaluazio izan beharko luke eta ez da horrela.
- Proiektuaren arabera, Jaizkibeldik hartu ahal izango den ura Jaizkibelgo akuiferoak berez jasotzen duena baino handiagoa izatera hel daiteke. Horrek, akuiferoaren idortzea ekar dezake.
- Jaizkibelgo ur-hartuneen beharra egon daitekeen ur-gabeziarengatik justifikatzen da, baina Domikoko urtegian biltzen den ura Irugurutzetako zentral hidroelektrikora bideratzen da eta ez giza-kontsumora.
- Ez dago lehorre arriskurik eta, inolaz ere Jaizkibelen horrelako proiektu bat gauzatzeko beharrik ere.

Aurkeztutako dokumentazioa ERANSKIN modura jasotzen da.

Azalpen hau entzun ondoren, Jaun Mari Altunak azpimarratu du ez duela proiektuaren inguruan eztabaida bat hasiko Txingudiko Zerbitzuak-en arduraduna bertan izan gabe, bera baita proiektuaren arlo teknikoan jakitun dena. Are gutxiago gaurko Herritar-Foroa beste gai batzuen berri emateko bildu denean. Halere, bertaratutakoei jakinarazi die proiektuak administrazio eskudun guztien baimenak dituela.

Hurbildutako beste pertsona batzuek proiektuaren inguruko azalpenak emateko, Txingudiko Zerbitzuak-eko arduraduna eta beste administrazio eskudunetako arduradunak Herritar-Foro baterako deialdia gonbidatzeko eskatu diote Udalari.

Udaletik jakinarazi da badagoela mahai inguru publiko bat egiteko asmoa eta Herritar-Foroko partaideei espresuki emango zaiela honen berri.

Bestalde, idazkaritza teknikoari jakinarazi zaio Pasaiako Kanpo-Kaiaren inguruan egindako bileren aktak oraindik ez daudela udalaren web gunean igota. Era berean, ebaluazio eta adierazleen informazio osoa web gunean jartzeko eskatu dute bertaratutako batzuek, aurkeztutakoa laburtua dela adierazi baitute. Aitorrek jakinarazi die laburpena egin dela bilera gehiegi ez luzatzeko, baina nahi izanez gero dokumentazio osoa bidaliko zaiela eta hemendik aurrera web gunean ere zintzilikatuko dela ebaluazio programa eta iraunkortasun adierazleen kalkulurako programari buruzko informazio osoa.

Amaitzeko, Juan Mari Altunak eskerrak eman dizkie bertaratutakoei eta bilera amaitutzat eman du.

Bilera 21:15ean amaitzen da.